



### Gure Lagunak

Fronte Polisarioa



### Iparra galdu gabe

Giza Eskubideei buruzko Foroa



### Esperientzia adierazgarriak

Guatemalako Ixcaneko emakumeen partaidetza



### Aurpegia ematen dugu

Iñigo Egiluz, in Memoriam



Marokok Saharako herrian ezarritako zapalkuntza larriagotu egin da

# Aminetouk ekarri zigun oparia

José Antonio Monje

Mundubat-ek Saharako Errepublikar Arabiar Demokratikoan daukan Ordezkaritzako Koordinatzailea

Marokoko gobernuak legez kanpo okupatutako lurraldeetako sahararren aurka garatutako indarkeria ankerra ez da atzo goizeko arazoa. Fronte Polisarioarekin negoziatzeko hurrengo txandaren prestaketarako bilerak blokeatu nahian, monarkia alautarrak zenbait hilabete daramatza zapalkuntza, torturak eta atxiloteta arbitrarioak are gehiago larriagotzen. Horrela, bada, giza eskubideak zigorgabetasunez eta etengabe urratzen dira Marokoren okupazioa hasi zenetik, baina orain, egoera hori gaiztotu egin da erabat.

Testuinguru horretan, giza eskubideetako zazpi ekintzaile bahu dituzte, eta Aminetou Haidar bota dute Saharako lurraldetik. Aminetouren kasua oso adierazgarria da, ez delako ez gertaera isolatua, ez borroka baktiaren amaiera. Gaur egun, Aminetou Haidar

mundu zabalean gehien ezagutu eta onesten duten ekintzaile sahararra da. Urteak eta urteak daramatza borrokatzen eta pairatzen. Era berean, sari ugari ere jaso ditu bere lan eskergagatik, eremu publikoetan parte hartu du sarritan eta agerpen handia du komunikabide masiboetan. Gaur egun, Sahararen erresistentzia baketsuaren sinbolo zilegizkoena dela esan dezakegu.

Gobernu alautarraren baldarkeria politikoa ohikoa da, eta, Aminetouren kasuan, beste akats larri bat egin zuen. Ez zen konaturatu horrela eraso eginez gero ezusteko elkartasun-korrante indartsua sortu zitekeela Saharako auziaren alde. Izan ere, horixe bera gertatzen da une honetan. Espainiako gobernuaren konplizitate lotsagarriaz, agintari okupatzaileek Haidar Saharako lurraldetik bota dutenez, Saharako auziari oso leku garrantzitsua ematen diote penintsulako zein mundu zabaleko albistegietan. Gaur egun, askoz jende gehiagok du Saharako "arazoaren" berri, egitateen aurkezpen hutsetik haratago joan dira eta arrazoiak aztertu ditu.

Hainbat eta hainbat jende harri eta zur gertatu da, Marokoko monarkiaren barrabaskeria babesten duten gobernu europar gehienek jarduketa lotsagarria ikustean.

Hala ere, akats horri esker, Saharako herria askatzeko prozesuko bataila handi-entakoaren hasieran egon gintezke. Bataila estrategikoa da, eta 2005. urtean lurralde okupatuetan hasitako intifada baketsuaren jarraipena izan daiteke. Gainera, monarka alautarraren borondatearen kontra, bataila hori Saharako indar biziek eurek sustatuko dute, tiro bakar bat ere jaurti gabe eta lotsaren harresiaren aurrean tanke bakar bat ere jarri gabe. Hori dela eta, Saharako auzia babesten dugunonen konpromiso sakona kontuan hartuta, gaur borroka horretan lagundu behar dugu, Aminetouk familiarekin itzultzeko daukan eskubidea defendatu behar dugu eta, bere adibide baliotsuaren bidez, are gehiago gizatiartzen jarraitu behar dugu.

Eskerrik asko, Aminetou, hain opari preziatua egiteagatik.

## Gure Lagunak



## Saguía el Hamrako eta Rio de Oroko Liberazio Fronte Herritarra (Polisarioa)

1973. urtean, Saharako ikasle-talde batek Fronte Polisarioa sortu zuen El Uali Mustafa Sayyiden lidergoan, nagusitasun espainiarraren aurkako liberazio-borrokari eusteko asmoz. Borroka hori, hain zuzen ere, Sahararen Liberazioarako Mugimenduaren eskutik hasi zen 60ko hamarkadan, 1970ean El Aaiuneko hirian desagertutako Mohamed Sidi Brahim Basir lider sahararraren zuzendaritzapean. 1976ko otsailaren 27an, Espainiako gudarosteek lurraldetik alde egin zutenean eta Marokoren inbasio berriari aurre egin behar

izan ziotenean, Fronte Polisarioak Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zuen (SEAD).

Ondoren, 16 urtez, gerra ankerra garatu zen Mendebaldeko Saharan, Saharako, Marokoko eta Mauritaniako armaden artean, harik eta 1991ko irailean su-etena ezarri zen arte. Gero, Mendebaldeko Saharako Erreferendumerako Nazio Batuen Misioa (MINURSO) sortu zuten, istiluak eten egin zirela bermatzeko eta Sahararen autodeterminazioarako erreferenduma prestatzeko. Oraindik, ordea, ez da erreferenduma egin, Maroko horren aurka dagoelako.

Sahararen eta Marokoren arteko gatazkaren ondorioz, errefuxiatu sahararren kanpalekuak daude Aljeriako Tindoufen. Bertatik, Fronte Polisarioak SEAD gobernatzen du, eta Marokorekin negoziatzen jarraitzen du, autodeterminazioarako erreferenduma egiteko eskubidea duela defendatzeko. Bertatik, gainera, garapena sustatzeko programak eta proiektuak jartzen ditu abian, Mundubat-en laguntzaz.

Gaur egun, baterako ahaleginak egiten dira, kanpalekuetako biztanleen elikadura, hezkuntza, lanbidea eta osasuna hobetzeko. Aldi berean, Fronte Polisarioak Saharako "lurralde liberatuetan" garatzen duen lan handia ere sustatzen du Mundubat-ek. Zentzu horretan, Fronte Polisarioak Saharako arazoaren ordezkari politiko moduan dituen zilegitasuna eta lidergoa aldarrikatzen ditugu etengabe, eta eurekin bat gatoz, nazioartean euren autodeterminazioarako zein subiranotasunerako eskubidea onetsi behar dela eskatzen dugunean.



### Esperientzia adierazgarriak

## Guatemalako Ixcaneko udalerrian, emakumeen herri-partaidetza sendotzea

36 urte iraun zuen barne-gatazka armatua 1996an amaitu zen, bakea sinatu zenean, eta prozesu hori oso-oso bizia izan zen Ixcaneko udalerrian. Epealdi horretan, biztanleen gizarte-sarea erabat suntsitu zuten ia-ia, baina batez ere, partaidetza demokratikorako eta eskubide zibil zein politikoaren erabilerarako eremuak. Egoera hori alderantzikatu bada ere, udalerrian egiturazko txirotasuna eta testuinguruaren araberako ezaugarriak nagusi direnez eta bake-hitzarmenaren betearazpenean oso gutxi aurreratu denez, demokrazia eta toki-boterea ez dira udalerrian sendotu; eta are gutxiago, erabateko partaidetza eta emakumeen eskubideen erabilera.

Hori dela eta, 2006ko irailetik 2008ko apirilera, honako proiektu honetako I. eta II. faseak garatu ziren Nafarroako gobernuaren finantziarioari esker: "Ixcaneko udalerrian, emakumeen herri-partaidetza sendotzea". Hartara, emakumeen erakundeak eta emakume liderren banan-bananako eta taldekako lidergoa eta antolatuntzarako nortasun politikoa indartu ahal izan dira, udal-arloko ekintza politikoari begira. Bestek beste, honako hauxe lortu zen proiektu

tu horretako I. eta II. faseetan:

- Genero-berdintasunerako udal-politika egitea.
- Ixcaneko Emakumeen Erakundearen Sarea (ROM) eta Emakume Gazteen Erakundea eratzea.
- Emakumeen aurrerakuntzarako toki-instituzionaltasuna sendotzea, baina batez ere, Emakumeen Udal Bulegoa eta Emakumeen Udal Batzordea.
- Instituzionaltasun nazionala egituratzea eta, horretarako, etengabeko koordinazioa ezartzea Presidentetzako Emakume Idazkaritzarekin eta Toki eta Landa Garapenerako Kontseiluaren Sistemarekin.
- Emakumeen alfabetizazioaren aldeko toki-politika positiboa instituzionalizatzea.

Emaitzak onak izan direnez, Guillermo Toriello Fundazioak eta Mundubat-ek, Nafarroako gobernuaren laguntzaz (berriro) eta Donostiako Udalaren ekarpen berriaz, hasitako pro-

zesuari eman diote jarraipena, emakumeen herri-partaidetza kontzientea bezain eraginkorra arlo zibil, politiko, sozial eta ekonomikoan sustatzeko eta arlo pribatu zein publikoan emakume eta gizonen arteko desberdintasuna gutxitzeko.



## "Giza eskubideen eta gizarte-aldaketaren aldeko borroka berriak" topaketa

Urriaren 17an eta 18an, Giza eskubideen eta gizarte-aldaketaren aldeko borroka berriak topaketa egin genuen Donostian. Bertan, hegoaldeko zenbait gizarte-erakundetako 22 kidek eta iparraldeko zenbait GKE eta gizarte-mugimendutako 200 inguru lagunek parte hartu zuten.

Pertsona guztien eskubideen defentsa gizarte-aldaketaren aldeko borroka dira berez. Nolanahi ere, giza eskubideen aldeko borroka sozial batzuk ezarritako eskubideen sustapenetik haratago doaz.

Talde askok eskubideak proposatzen jarraitzen dute: herrienak; lurralderakoak; emakumeenak; langileenak; erkidego nekazari, indigena eta afroinordekoenak; langabetuenak; nekazarienak eta elikaduraren subiranotasunerakoak; zigorgabetasunaren aurkako borroka; beroketa globalaren aurkako; militarismoaren aurkako... Horrela, gizarte-aldaketaren aldeko borrokarako eskubidea ehuntzen dute.

Foroaren bidez, pertsona guztiek eta gizarte-mugimenduek eztabaidatzeko ekarpenak eta formulak mahaigaineratu nahi izan ditugu, hegoaldeko zein iparraldeko gizarte-mugimenduetatik gaur egungo globalizazio neoliberalari aurre egin ahal izateko.

Erresistentziak mundializatzea eta borroka globalizatzea dugu helburu, itxaropenari leihoa irekitzeko asmoz.



## Mundubaten 20. urtemugaren ekitaldia

Azaroaren 14an, larunbata, Mundubat-ek 20 urte bete zituen, hegoaldeko nahiz iparraldeko bideetan zehar egindako ibilaldian. Bilboko Kafe Antzokian egindako ekitaldi xumean, adiskide ugari inguratuta, Iñaki Markiegi, GGKEko presidentea, bidaia horren ondik norakoak ekarri zituen gogora, eta etorkizuneko erronkak zein galderak izan zituen hizpide. Era berean, omenaldi sentikorra eskaini genion duela 10 urte Kolonbian hil zuten Iñigo Egiluz lankideari. Une zirraragarri hori Nuria Telleriak, Iñigoren kide ohiak, jarri zuen hitzetan. Omenaldiari amaiera emateko, Ojos de Brujo musika-taldeak ordu txikieta arte alaitu zuen jaia.



## Agenda

- Abenduaren 1etik 18ra, **Emakume nekazariak izeneko argazki erakusketa** Kabigorri. Irun. Gipuzkoa.
- Abenduaren 14tik 29ra, **Saharako emakumeen gaineko argazki erakusketa** Dulantzi. Araba.
- Abenduaren 18tik 31era. **Palestinari buruzko argazki erakusketa** Yhon jauregian. Bilboko Alde Zaharra.
- Abenduaren 10ean (19:30etan). John Sajonero-k emandako **"Giza eskubideen urraketa eta inpunitatea Kolonbian"** izeneko hitzaldia. Bilbo (ikus [www.mundubat.org](http://www.mundubat.org)).
- Abenduaren 13an, 11etaik aurrera **Mundubat-ek Barakaldo eta Getxoko elkartean azoketan stand bana jarriko du.**
- Abenduaren 16an, Raji Sourani, **Palestinako Gazako Giza Eskubideen bulegoko zuzendariak hitzaldia eskeiniko du Bilbon** (ikus [www.mundubat.org](http://www.mundubat.org)). Mewando sareak antolatzen du

## GENERO-BERDINTASUNA

Azaroan, genero-berdintasunaren aldeko antolakuntza-aldaketarako prozesua hasi da Mundubat-en, geure funtzionamendua, sinesmen partekatua eta genero-desberdintasunen aldeko jokabideak ulertzeko ditugun gaitasunak handitu nahian. Era berean, helburu, adierazle, bitarteko eta baliabide zehatzak eskaintzen dituen ekintza-estrategia ere egingo dugu, erakunde bertan nahiz gure kanpo-zereginetan genero-desberdintasunei aurre egiteko. Horretarako, genero-taldea suspertu dugu, eta kanpoko aholkularitza-enpresa baten laguntza jasoko dugu prozesuan zehar.

Aurpegia ematen dugu

Iñigo Egiluz, kooperantea Kolonbian



# "In Memoriam. Iñigo Egiluz"

Orain dela hamar urte, paramilitarrek Iñigo Egiluz lankidea eta Jorge Luis Mazo apaiza hil zituzten. Hori dela eta, Iñigori eskaini nahi diogu atal hau. Horretarako, Kolonbiatik bidali zuen azken gutunaren zati bat jarri dugu bertan:

*"Hona hemen erkidego beltz eta indigenekin garatutako lanaren ardatz nagusiak: batetik, lekualdatzeko arriskupean dauden biztanleak babestea, bizi-baldintza duinak sortzea eta euren lurraren legezko edukitza sendotzea; eta bestetik, lekualdatutako erkidegoen itzulera lortzea, Kolonbiako estatua-ren konpromisorik ezagatik hiri hartzaileetan jasaten dituzten arazo larriak konpondu ahal izateko.*

*Agerikoa denez, lan hori ez dator bat indarkeriaz eta larderiez lurrez jabetu nahi dutenen interesekin.*

*Oraingoaz, besterik ez, harremanetan jarraituko dugu.*

*Besarkada bat, Iñigo.*

*Quibdón, 1999ko azaroaren 11n."*

Iñigo eta Jorge Luis Atrato ibaian hil zituzten azaroaren 18an, hau da, aste-bete geroago.

Argitalpenak

## Hamar urteko ametsak, utopiak eta erresistentziak Iñigo Egiluzen eta Jorge Luis Mazoren omenez

"10 urte igaro dira hil zintuztenetik, eta, oraindik ere, hementxe zaude, gure oroimenean, gure bizitza eta elkarrizketetan, gure borroka eta ametsetan..."

Hori dela eta, argitalpen hau kaleratu behar genuen, eza zaitugulako ahaztu nahi eta inork ahaztu behar ez zaituelako. Izan ere, zure hilketa ez ezik, Chocoko ekozidioa, genozidioa eta etnozidioa eduki behar ditugu gogoan. Hantxe bertan geratu zinen betiko, bizia eman eta kentzen duen Atrato misterioitsu horretan kulunkan...". Horrelaxe hasten da Atlantikoko bi aldeetako adiskide eta lankideek gutun, olerki eta kontakizun moduan eskaini dioten omenaldia.



Eskatzeko:  
emintegi@mundubat.org  
edo (+34) 944162325 telefonoa



**Bat egin!  
Izan bazkide**

Mundubat GGKE  
Sombrerería, 2 3. / 48005 BILBO  
(+34) 944 162 325  
mundubat@mundubat.org  
www.mundubat.org